


Txirritola

Aramaioko euskara elkarteak argitaratuta.
Udalak diruz lagundutako berripapera.

2001eko ekaina - 5. zenbakia

ARAMAIO ETA TICHLA SENIDETU EGIN DIRA



ARAMAIOKO UDALA ETA AFRIKAKO SAHARAKO TICHLA HERRIA SENIDETU EGIN DIRA, HAU DA "ERMANATU". HORI DELA ETA, ARAMAIOKO ALKATEA IÑAKI

NAFARRATE BERTAN IZAN DA LAU EGUNETAN. ELKARRIZKETA HONEN BITARTEZ, TICHLA HERRIA EZAGUTZEN SAIATUKO GARA.


📍 -Nondik dator beste herri batekin senidetzeko asmoa?

- Aramaioko Udalak urteko aurrekontu korrontearen %0,7a destinatzen du Euskal Fondora. Erakunde honen bidez, euskal udalerriek emandako dirulaguntza munduko herri gutxituen artean gestionatzen da. Euskal Fondoak toki bakoitzeko udalaren bidez egiten du gestioa, baina azken helburua herri hauen bizitza egoera minimoa ziurtatzea da. Gauzak horrela, Aramaioko Udalak gonbidapen desberdinak

jaso ditu Nikaraguako hauteskondeetan begirale izateko, esate baterako, baina laguntza ez da ezertan gauzatu Saharako herri honekin kontaktatzeko posibilitatea Udalean aztertu arte. Aramaioko Udalak elkartasun printzipioetan oinarriturik Tichla herriarekin senidetzea erabaki zuen orain dela hilabete batzuk. Arrazoen artean, Aramaio eta Tichla herriek ezaugarri ideologiko batzuk konpartitzea argudiatu genuen, besteak beste, lurralde politika jarduerarako egiturak.

📍 -Nolakoa izan zen lehendabiziko kontaktua Tichla herriarekin?

- Aramaion zaborra jasotzeko erabiltzen zen kamioia bertara bidaltzeko asmoa azaldu genuenean, horixe izan zen lehenengo kontaktua. Ez zen bat ere erraza izan, kamioia ez zegoen baldintza onean haraino bidetik joateko, eta Kurdistanekoekin eraman behar izan genuen nolabait. Lehen kontaktua hori izanda, gero bertara joateko gonbidapena jaso genuen Euskal Fondoaren bitartez eta



Familia honen jaiman igaro zituen 14 egunak.

oraingoan onartu egin genuen, senidetutako herria ezagutzeko interesa genuelako. Bidaia martxoaren 16tik 20ra egin nuen Aramaioko Udaleko ordezkari gisa, baina ez nintzen ni bakarrik joan, bi hegazkin irten baitziren Bilboko aireportutik, bata ordezkari politikoekin eta bestea familiariekin, bertako umeak hemen jasotzen dituzten familiariekin.

BASAMORTURA BIDAIA

📌 **-Zein inpresio jaso zenuen hegazkinetik jeitsi ondoren?**

- Argeliako Tindufeko aireportu militarrean heldu ginenean, "todoterreno" batzuekin egin behar izan genuen bidaia, nire kasuan, Tichla herrira heltzeko. Ez ginen guztiok toki berdineran joan, bakoitzak destino jakin bat zuen eta. Nik ordubeteko bidaia egin ondoren heldu nintzen Tichlara, eta "jaima"(telaz egini-ko denda txikia) batera eraman

ninduen itzultzaileak. Bertan familia bat bizi zen eta beraiekin igaro nituen lau egunak.

📌 **-Nolakoa da Tichla herria?**

- Tichla, Saharako herria da baina jadanik 25 urte daromatza Argeliako mugan, erre-fuxiatuen kanpamendu gisa. Hainbeste urte igaro ondoren, kanpamendu desberdinak udalerrietan antolatu dira eta hauek pro-

bin-tzietan. Beraz, Tichla Aousserd probintziako udalerrria da. Jende kopuruari dagokionez, probin-tzian 20.000-25.000 pertsona bizi dira gutxigorabehera, eta Tichla bezalako herrietan 5.000-6.000. Basamortuan bizi dira, egoera nahiko txarrean, familiak jaimatan banatuta, ura kamioi zisternaren bidez banatzen da, eta oso gutxi jaten dute. Kontutan izan behar dugu musulmanak direla eta ohitura desberdinak dituztela. Egunean zehar te asko hartzen dute, eta tea hartzea erritua da. Hiru te desberdin hartzen dute bakoitzeko: lehena "bizitza bezain garratza", bigarrena "maitasuna bezain dultzea", eta hirugarrena "heriotza

bezain goxoa".

HELBURUA: SAHARA

BERRESKURATU

📌 **-Igarri zenuen gerra giroa?**

- Explizitoki ez, baina gizonezko gehienak ez dira herrian bizi, nahiz eta batzuetan etortzen diren. Uste dut frentean daudela, hurrengo erasoak prestatzen. Gogoratu dezagun, Marokok Sahara militarri okupatu zuenean eta lurraldea bere gain hartu zuenean, Tichla bezalako herri asko Saharatik ihes egitera behartu zituzten. Orduetik, Argelia eta Saharako mugan bizi dira errefuxiatu kanpamenduetan. Baina, nahiz eta jadanik 25 urte igaro diren, ez dute etsi eta hurrengo erasoak prestatzen dabiltzala iruditu zitzaizkidan.

📌 **-Beraz, emakumeak zeregin handia izango du herri hauetan.**


- Noski, emakumea da eguneroko bizitza zuzentzen duena, Udaletxe bakoitzean arazoak konpontzen dituena, eta seme-alabak hezitzen dituena. Zentzu berean nahiz eta kontrajarria iruditu, emakumea oso diskriminatuta bizi da herri hauetan, inoiz ez zaio ezer erre-konozitzen eta inoiz ez da kontutan hartzen publikoki.

Emakumeen lana isileko lana da.

📌 **-Nolakoa da osasun zerbitzua, heziketa, ...?**

- Herrietan nahiko azpiegitura gutxi dute, gehienak probintzia mailan daude: Udaletxea, ospitala eta abar. Heziketari dagokionez, garrantzia handia ematen diote eta gazte askok nahiko maila

“HIRU TE DESBERDIN HARTZEN DUTE BAKOITZEKO: LEHENA -BIZITZA BEZAIN GARRATZA-, BIGARRENA -MAITASUNA BEZAIN DULTZEA- ETA HIRUGARRENA -HERIOTZA BEZAIN GOXOA-.”



Pethram, Tichlako emakumea.

altua dute, Argelia eta Kubara joaten dira ikasten. Nirekin izan nuen itzultzailea esate baterako, bertakoa zen eta hiru hizkuntza hitz egiteaz gain, Argelian egini-ko psikologo ikasketak zituen.

Garapenarekin lotuta aurre-rapausu txiki batzuk ere igarri nituen. Adibidez, oilo gorrien granja bat bisitatu nuen, oso ondo prestatuta, garbi garbia eta hemengoak beste produzitzen zuena.

📌 -Tichlaz gain, beste herri batzuk ezagutzeko aukera ere izan duzu, ezta?

- Bai, hiru kanpamendu desberdin bisitatu nituen, eta egia esan, bizitza baldintzak berditsuak dira guztietan.

AURRERA BEGIRA, ZER?

📌 -Bertan lau egun igaro ondoren, nolako balorazioa egiten duzu?

- Positiboa, bere lurretik kanpo bizi den herri bat, eta beste kul-

“ERDERAZ ESATEN DEN BEZALA, -NOS QUEJAMOS DE VICIO-. HORIXE DA TICHLAKO ERREALITATEA EZAGUTU ONDOREN GELDITZEN Z AidAN INPRESIOA.”

tura bat ezagutzeko aukera izan dudalako batetik, eta han jasotakoa hemengoei kontatzen saiatuko naizelako bestetik.

📌 -Gure bizi kalitatea hobeto apreziatzen al duzu orain?

- Bai, erderaz esaten den bezala, “nos quejamos de vicio”. Horixe da Tichlako errealitatea ezagutu ondoren gelditzen zaidan inpre-

sioa. Hangoek ez dute bizitzeko ere, eta guk nahi dugun beste izanik, gehiago eskatzen dugu. Zelako paradajikoa!

📌 -Nola gauzatuko da Aramaio eta Tichla arteko erlazioa hitzarmena sinatu ondoren?

- Erlazioa Euskal Fondoaren bidez izango da aurrerantzean ere eta erakunde honek gestionatuko ditu hemendik bidaliko diren laguntzak.

Honekin lotuta, ezin ditugu hango herrien arteko diferentziak sortu, herri guztiek bizitza kalitate berdintsua dutelako eta dirulaguntzak ere berdintsu heldu behar zaizkielako.

Beste mota batzuetako laguntza ere gauzatu daiteke hurrengo urteetan.


📌 -Lehendabiziko kontaktuen ondoren, izango da beste kontaktu pertsonalik?

- Bai, interesgarria izango litzateke datozen urteetan udal korporazioko beste pertsona batzuek ere Tichla ezagutzea.



Senidetze hitzarmena Iñaki Nafarrate eta Tichlako alkate ordeak sinatu zuten.

Badakizu Aramaixo Saharako herri batekin senidetu dala? Zer egin geinke laguntzeko?



Alfonso del Campo

Bai, ez dakit zein herri den eta non dagoen, Saharan edo Argelian. Laguntzeko, lehenengo beharrak ezagutu behar dira, tontakeriak bidaltzeko ez du zentzurik eta.



Itsaso Lopez de Vergara

Bai, badakit, baina zer egin geinken laguntzeko, uff! oso zaila da esatea, ez dakit.



Julen Ibabe

Ez, ez dakit ezer. Uste dut, dirua, arropak, jolasak bialdu daitezela, edo igual norbait juen laike bertakoak laguntzera.



Arantxa (Kintelena)

Bai, zerbait entzun dot. Baina laguntzeko ez dakit zer egin laiken, zer esangotzut ba nik?



Emilio Perez

Bai. Lehenengo laguntzailea nor den ikusi behar da, gero hartzailearen egoera sakontasunez jakiteko, eta irizpide nagusiak ezagutu ondoren (heziketa, osasuna), elkarlanean ekin formalidadez.



Marije Madina

Ez. Irratian herri desberdinak laguntzeko enkante bat egin zen pertsonaia desberdinen arropa eta gauzak eskainiz, eta ideai polita iruditzen zait. Hango umeak hona ere ekarri daitezke denboraldi bat pasatzera.

ZURE SUJERENTZIAK HEMEN:



BAZKIDE-SOZIO IZATEKO TXARTELA

(Urte osoko kuota 1.000 pezetakoa izango da)

Izen-abizenak:

Helbidea:

Banketxea:

Kontu korrentea: